

**2023KO EUSKAL HERRIKO
LANEKO EZBEHARREN TXOSTENA**

2024ko otsaila

**PATRONALAK ETA INSTITUZIOEK
GAIXOTU ETA HILTZEN GAITUZTE**

LAB · ESK · STEILAS · EHNE-etxalde · HIRU

1. SAR HITZA

Zerbitzu publikoen eraispen eta privatizazioak ez du etenik Euskal Herrian. Egun batetik bestera planteaturiko aldaketa sakon bat baino, tantaka-tantaka ari dira ahultzen bere muga eta gabezia guztiekin garatu diren zerbitzu publikoak. Ondorioz, zerbitzuen kalitatea eta langileen lan baldintzak okertzen dituzte: langile publiko gisa jarraitzen dutenen kasuan, langainkargen edo inbertsio falten eraginez edo zerbitzu publiko horiek eskaini ahal izateko azpikontraten ondorioz, langileek askoz ere lan baldintza okerragoetan kontratatzen dira. Langileriaren eta, oro har, jendartearen ongizatea baino kapitalaren edota enpresa zehatz batzuren etekina bilatzen dute, eta horrek ondorioak ditu Euskal Herriko langileriarengan.

Osasungintza da eraisten ari diren sektore nagusienetakoa: itxaron zerrenda luzeak, ambulatorioetan zerbitzu eta baliabideak urritzea, telefono bidezko kontsultak, eremu batzuetako privatizazioa... Osakidetza eta Osasunbidea ahultzearekin batera osasungintzako enpresa pribatuei ematen zaie bultzada. Batetik, sistema publikoa ahultzearekin eta zerbitzuen kalitatea okertzearekin batera aseguru eta zerbitzu pribatuen kontratazioak gora egiten duelako. Bestetik, mutualitateei gero eta botere handiagoa esleitzen zaielako. Duela urte batzuk osasungintzaren dualizazioa gertatuko zela salatu genuen, osasungintza sistema bikoitza garatzeko arriskuan geundela, orduko politika publikoak aldatu ezean: osasun sistema publiko ahuldua batetik, eta ordaindu dezakeenarentzat gero eta gehiago indartzen ari diren osasun sistema pribatua, bestetik. Politika publikoek bere horretan dira, are gehiago, privatizazioaren norabidean sakondu dutela esan dezakegu, osasungintza sistema bikoitz horretara gero eta gehiago hurbilduz.

2

Hezkuntzan ere administrazioak dituen osasun baliabideak eskasak dira. Langile askok urteak daramatzate mediku azterketak egin gabe, ez dagoelako mediku eta erizain nahikorik langile guztien kudeaketa egokia aurrera eramateko. Honetaz gain, lan karga handitzearen eta lan baldintzen okertzearen ondoriozko estresak, antsietateak eta beste mila arazok gora egiten duten bitartean, langileen arazo psikosozialak ez dira aintzat hartuak, eta ikastetxeetan osasun mentaleko profesionalen presentziaren beharra geroz eta nabariagoa da. Hau guztia gutxi balitz, administrazioak, lana aurrera eraman ahal izateko lan poltsetatik langile publiko gehiago kontratatu beharrean, askotan enpresa pribatuak kontratatzen ditu langileen osasuna kudeatzeko.

Langileon osasun arretan horrelako arazoa izanik, ez da harritzekoa prebentzioan ere atzera egiten ari garela baieztatzea. Laneko istripuak eta gaixotasunak bi arrazoi nagusirengatik gertatzen dira batik bat: enpleguaren prekarietateagatik eta prebentzio neurri egokiak ez hartzeagatik.

Lehenari dagokionez, langileon lan eta bizi baldintzak gero eta prekarioagoak dira. Hego Euskal Herriko bi langiletik batek ez du nahikoa diru-sarrerarik bizitza duin bat garatu ahal izateko, enpleguaren eremuaren deserregularizazioa gero eta handiagoa da, sektore feminizatuetoako prekarietateak ez du etenik... eta gainera, emakumeok zaintza lan ez ordainduak geure gain hartzen jarraitzen dugu lanaldi bikoitzak ahalbidetuz, horrek guztiak lan osasunean dakartzan ondorio kaltegarriekin.

Laneko arriskuen prebentzioaren lanketa ere urrun dago izan beharko lukeenetik. Ia hiru hamarkada pasa dira laneko arriskuen prebentziorako legea indarrean sartu zenetik. Legeak hasieratik izan zuen betetze maila eskasa, eta urteak aurrera egin ahala prebentzio neurrien aplikazioan atzerapauso nabarmenak gertatu dira. Gainera, mutualitateei gero eta eskumen gehiago eman zaizkie, langileon osasuna gero eta gehiago pribatizatuz.

Argi dago laneko osasuna ez dela errentagarria patronalarentzat, eta osasunaren arta zein prebentzioa ikuspegi merkantilistarekin garatzen ari da. Neurri egokiak hartuz gero langileok ez genuke lanean gaixotu edo hil beharrik, baina patronalari errentagarriago zaio gaixotasun eta heriotza horiek asumitzea prebentzio neurri egokiak eta lan osasuna erdigunean jarriko lukeen eredu bat garatzea baino. Eta egun Euskal Herriko instituzioak kudeatzen dituzten alderdi politikoek egiten uzten diete, indarkeria horren aurrean beste aldera begiratzen dute eta ikuskaritzak ez du bere lana betetzen. Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE), Osalanek (Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea) eta Nafarroan NOPLOIk (Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutua) lan osasuneko plan estrategikoak egin dituzte. Orriak eta orriak idazten dituzte neurri eraginkor bakar bat hartu gabe, arazoaren arrazoiak joateko erabaki politikoak hartu behar baitira, baina ez dago borondate politikorik horretarako. Laneko osasuna ez da izaten ari instituzioen lehentasun, ez prebentziora dagokionez, ezta ondorengo artapenari dagokionez ere.

LAB, STEILAS, ESK, EHNE eta HIRU sindikatuek gure lehentasunen artean dugu lantokietan lan osasunerako eskubidea bermatzea eta horren alde lanean jarraituko dugu. Borroka horren mesedetan indartuko ditugun lerroak honakoak dira:

- Lan istripuen erantzunaren eta osasun galeren kontrako dinamika indartu.
- Prekariatatearen kontrako borroka indartu eta ekintza sindikal berrituan lan osasunaren aldagaia txertatu. Egungo egoera hobetzearekin batera eredu berri baten alde egiten jarraitzen dugu.
- Mutualitateen kontrako borroka indartu.

2. ONDORIO NAGUSIAK

- Aurtengo laneko ezbeharren datuek aurreko urteetako hausnarketa berresten dute, intentsitate ezberdina eman delarik istripu mota batzuetan. 2023 urteko istripuen datuak azken urteetako goranzko joeraren erakusle dira. Ez da lan istripuak ekiditeko neurri eraginkorrik hartu eta ondorioz aurreko urteetako joera mantentzen da. Sektore jakin batzuetan istripu larri edo hilgarriak pairatzea errazagoa da, basogintza, eraikuntza, garraioa, industria, etab.

- Laneko gaitzei dagokienez bai Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) bai Nafarroan iaz baino gehiago aitortuak izan dira, baina mutualitateek egiten duten azpierregristöak iruzur ariketa lotsagarria jarraitzen du izaten. Osasunerako Munduko Erakundearen esanetan, minbizi guztien %30-%40 bitartean izango litzake lanak eragina, aldiz, Euskal Herrian gutxi batzuk dira aitortuak. Amiantoak gaixotutako langileen aitortza nekeza da, askotan hil ostean iristen dena. Zer esanik ez jatorri psikosoziala duten arazoengatik, modu nabarmenean sektore feminizatuei eragiten die, gaitz horiek ez daude aitortuak laneko gaitz bezala. Lanak eragindako

gaixotasun muskuloeskeletiko gehienak, sektore feminizatueta intzidentzia handiagoa dutenak, kontingentzia arrunt bezala izendatzen dira, enpresen ardura saihesteko. Laneko gaixotasunak ikusezin bihurtzen dituzte oraindik, zer esanik ez emakumeen kasuan. Lan batzuk hil egiten dute, beste batzuk ez dute bizitzen uzten.

- **Datu ofizialek errealitatea ezkututzen dute:**

- Istripuen komunikazioa enpresak berak egiten du. Milaka istripu arin komunikatu gabe geratzen dira eta langileak botikinean edo lanorduz kanpo anbulategietan dira hartatuak.
- Istripuen kalifikazioa ez da irizpide objektibo batzuren baitan egiten, ez direlako irizpide horiek existitzen. Beraz, Mutualitateko sendagileak erabakitzen du istripu bakoitzaren larritasunaren izendapena, teoriarik teknikoak, baina gure ustez Mutualitateak markatutako kriterioak. Ondorioz, ezin dugu ondorio fidagarriarik atera gai horri dagokionez. Laneko istripuak igo egin dira oro har, baina arin eta larrien bilakaera aztertzeke zailtasunak ditugu.
- Sindikatuok zenbatutako lan istripuz hildako langile kopurua 59 izan da aldiz administrazioak 33 heriotz aitortu ditu. Gobernuak hainbat amarru erabiltzen dituzte heriotzak ezkutatzeko, auto istripuz hildako langileak ez aintzat hartu, heriotz ez traumatikoak saihestu, eta beste zenbait.

- Heriotz ez traumatikoetan faktore laborala gero eta nabariagoa da. Azken urteetan jendartean intzidentzia kardiobaskularraren beherakada nabarmena eman da, baina horrek ez du islada berdina izan lan munduan. 2006tik gaur arte Estatus espainiarrean bihotzekoak jota hildakoen kopurua %40 jaitsi da, eta Hego Euskal Herrian ere joera antzekoa izan dela pentsa liteke. Hori, orokorrean, bizimodu osasuntsuagoa edukitzeagatik eman dela esan dezakegu. Aldiz, Hego Euskal Herriko langileria aktiboan bihotzekoen intzidentziak 2006ko kopuruak mantentzen ditu. Beraz, laneko faktoreek, estresak, gero eta lan erritmo altuagoak, presioak, prekaritateak, etab. eragin nabarmena dutela heriotz mota honetan.

- Emakumeon lanaldi bikoitzak eragin zuzena dauka lan osasunean. Oraindik ere emakumeak dira etxeko eta zaintza ardurez neurri handiagotan arduratzen direnak, enpleguaz gain etxeko eta zaintza lanak eginez lanaldi bikoitzera kondenatuak direnak. Presioak eta estresak osasunaren galera dakar, eta arazo muskuloeskeletikoak ere nabarmen igotzen dira kasu horietan.

- Zerbitzuen sektoreak egun, afiliazioaren %73 dira eta etengabe goruntz doa. Zerbitzuek gero eta pisua handiagoa izatearekin batera lehen sektoretik gero eta urrunago dago jendartea eta ekoizpen prozesu gutxiago du; hori horrela, istripuek beheranzko joera izan beharko lukete, baina ez da horrela izaten ari.

3. EMAKUMEON EGOERA IKUSEZIN

Laneko istripuen ondoriozko datuak aurkeztean emakumeen eta sektore feminizatueta osasun galera eta heriotzak ikusezin uzteke arriskuan eror gaitzke berriz ere. Laneko osasunaz ari garenean ere, emakumeon* errealitatea ikusarazteke saiakera berezitua egin beharrean gaude. Izan ere:

- Sektore feminizatueta gaixotasun profesional gehienak ez daude aitortuta eta ez dira kontuan hartzen; bai zeregin errepikakorrek eta karga-zereginekin lotutakoak eta sistema muskulo-eskeletikoan eragin zuzenak dutenak, bai eta aitortu gabeko zaintza lanei lotutako arrisku psikosozial guztiak, osagai emozional oso altuak dituztenak. Estresarekin lotutako gaixotasun mailak ia bi aldiz handiagoak dira emakumeetan* (gizonekin alderatuta). Hau, aldi berean, bihotzeko gaixotasunekin, muskuloeskeletikoekin, depresioarekin eta akidurarekin lotzen da (NIOSH 2018), baina gehienetan gaixotasun arrunt gisa tratatzen dira, patronalen mutualitateetara jotzen dugunean sistematikoki ukatzen baitute gaixotasun horien lan-jatorria.
- 10 urtean, emakumeen* laneko gaixotasunak % 44 gehitu dira; horiek aitortutakoak baino ez dira, badakigulako askoz gehiago direla, baina gertatzen diren prekarietate-egoerengatik eta patronalen mutuek duten jarreragatik (patologiaren lan-jatorria ukatuz) errealitatea askoz larriagoa da.

Esku artean dugun txostena aztertzerako garaian, beraz, emakumeon lan osasunaren urraketen ikusezintasuna kontuan hartzeko elementua izango da.

4. IPAR EUSKAL HERRIAN DATU OFIZIALIK EZ


Lurraldetasunaren aitortza ofizial ezaren beste aurpegi bat da lan osasunaren inguruko datuak Akitania zabalean ematen diren datu orokorretan disolbatzea. Frantziaren administrazioaren hautu politikoa da aitortza eza, euskal nortasuna ezabatzearen helburuarekin. Ezinbestekoa da lurraldetasuna errespetatzea euskal herritarroei dagozkigun eskubideei bide emateko, beste askoren artean, lan osasunaren ere bermeak eskaintzea. Ez dezagun ahaztu, aurten 5 langile hil direla Lapurdi, Behe Nafarroa eta Zuberoan.

5. LAN ISTRIPU HILGARRIAK

LAB, STEILAS, ESK, EHNE eta HIRU sindikatuek 2023an lan istripuetan zenbatutako hildako langileak 59 dira. Horietatik 38 EAEn gertatu dira, 12 Nafarroan, 5 Ipar Euskal Herrian eta azken laurak atzerrian hildako Euskal langileak dira. Kopuru hori ezagutza izan dugun istripu hilkorrena da, gehiago ere izan litezke.

Lan istripu hilgarriak	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022	2023
ARABA			3	5	6	6	18	10	9	11
BIZKAIA	30	37	29	20	30	16	24	22	15	11
GIPUZKOA			8	16	10	9	17	16	19	16
NAFARROA	9	15	13	14	21	15	11	20	20	12
IPARRALDEA	0	3	2	0	1	0	3	0	2	5
EUSKAL HERRIAN *atzerrian hildako Euskal langileak kontatan hartuta.	39*	55*	55*	55*	68*	46*	73*	68*	69*	59*

LAN ISTRIPU HILGARRIEN BILAKAERA AZKEN HAMARKADAN



Istripu hilgarrien zehaztasunetan sartuz:

- Ez traumatikoak, 20 heriotz
- Kolpeak/harrapaketak, 9 heriotz
- In itinere, 7 heriotz
- Altueretatik eroriak, 6 heriotz
- Intoxikatuta, 3 heriotz
- Beste gizakiek erailda eta beren buruaz beste eginda, 3 heriotz

Sektore kritikoak :

- Basogintza, heriotz 1
- Arrantza, 3 heriotz
- Nekazaritza, 4 heriotz
- Industria, 18 heriotz
- Eraikuntza, 6 heriotz
- Garraioa, 10 heriotz
- Azpikontratatuak, 9 heriotz, tartean autonomo faltsuak (gutxienez, zailtasunak ditugu jakiteko)

Azken urteetako joerak berresten du sektore jakin batzuetan istripuz hiltzea errazagoa dela: basogintza, industria, garraioa, eraikuntza, nekazaritza, arrantza, etab.

Sektore horietako batzuetan araudi berezitua izanik ere, hilkortasun tasa nabarmen altuagoa da. Nahiz eta azken urteetan aktibitate arriskutsuetarako lan osasunerako araudia egokitzen joan den, oraindik ere istripu tasak oso altuak izaten jarraitzen dute. Aztertutako istripuen atzean beti araudiaren ez-betetzeak gailentzen dira.

Aztertzea da baita eremu azpikontrataetuan izaniko heriotz kopuru altua. Behin eta berriz salatu dugu azpikontratazioaren eraginez prekaritatea eta lan baldintzen okertzea areagotu egiten dela, eta lan osasunaren bermea ez da salbuespen bat. Azpikontratazioak patronalaren gaŕtuak murriztea du helburu, langileen lan baldintzen bizkar. Azpikontratetako langileen lan osasuna bermatzea, beraz, patronalaren azken kezketako bat da.

Bestalde, ohiko istripuetatik haratago heriotza “ez traumatikoek” presentzia oso garrantzitsua dute, arazo kardiobaskularrek sortuak, hain zuzen ere.

Historikoki, bai patronalak bai administrazioak “heriotz natural” bezala izendatu dituzte, baina denbora pasa ahala eta datuen ezagutza zabalagoa izanik, laneko faktoreen zerikusia gero eta nabarmenagoa da. Mota horretako istripuak ere kausa anitzekoak dira, pertsona bakoitzaren berezko faktoreez gain, bizi ohiturek ere badute beren eragina. Lanak eragindako faktore garrantzitsuenen artean, estresa eta arrisku psikosozialak daude eta azken urteetan hoberantz egin beharrean okerrera egin dugu, nabarmen.

Azken 15 urteetan Espainiako Estatuan (jendarte osoan) arazo kardiobaskularrek eragindako heriotzek behera egin dute nabarmen, Osasun Ministeritzaren arabera. 2006. urtean 22.028 heriotza izatetik, 2021ean 13.463 izatera. Aldiz, lan munduan ematen diren heriotz ez traumatikoek ez dute beheranzko joerarik erakutsi, kontrakoa, batzuetan igo ere egin dira. Gainera, kontuan izan behar dugu lanorduetan hildakoak soilik daudela kontabilizatuta. Kotizatzen ari den langile kopurua areagotzeak ez luke inondik inora justifikatuko heriotza ez traumatikoen kopuru hori, gizarte osoan ematen ari den beheranzko joerarekin konpentsatuko litzake hein handi batean. Honela, laneko arrisku faktoreen eragina nabaria dela adierazi behar dugu, urtetik urtera estresa eta arrisku psikosozialak gero eta ugari eta bortitzagoak direlarik, honek heriotza ez traumatikoen kopuru altuan eragina du.

Langileen heriotzen %40raino iritsi daitekeen arrisku faktore honen inguruan Osalan eta Noploiek izugarrizko lana dute egiteko eta lanak eragindako faktoreen kontrolan eskuhartzeko. Ezin dugu onartu, orain arte bezala “heriotza natural” modura kudeatuak izatea, tamalez erakunde hauek, eskema horietan jarraitzen dute.

Basogintzak aurten ere heriotza bat eta hainbat istripu larri utzi ditu. Nahiz eta iazko kopuruetara iritsi ez, eremu horretan diharduen langile kopurua aintzat hartuta, sektore arriskutsuenen artean egoten jarraitzen du. 1.000 langile inguru daude langintza honetan, hortaz, heriotza tasa oso altua da. Sektoreko lan baldintzak oso gogorrak dira eta patronalaren partetik lan osasunerako araudiaren betetze eza oso normalizatua dago.

Garraiolarien egoerak ere aipamen berezia eskatzen du, gero eta estuagoa da. Sektoreko langileek pairatzen dituzten baldintzak urtetik urtera gogortzen ari dira. Nazioarteko merkatuek, estatuen inongo babes neurrik gabe, lan baldintzak kaxkartzen dituzte, sektore eta lanbide globalizatua da.

Aurten hamar langile hil dira lan-istripuz; horietatik hiru istripu “ez traumatiko” izendatuak izan dira, sarri kamioian geldirik, kabinan zeudela gertatutako ezbeharrak. Lanaldi luzeek, estres maila altuak, lan sedentarioa izateak, digitalizazioaren bitarteko kontrol zorrotzak eta presioak eragin latzak ditu sektorean, istripu traumatiko edota ez traumatikoak pairatzeko agertoki ezinhoba da garraioa.

Aipagarria da, batetik, hildako garraiolarien adina. 50 urtetik gora zituzten ia denek. Sektorea zahartzen ari da, ez dago erreleborik, ez dago garraiolari gazterik, lan-baldintzak ez direlako batere onak. Sektoreko jubilazio adina segurtasun ikuspegitik erregulatzeko beharra dago, beste ofizio batzuetan egin ohi den bezala, 60 urtetan kokatuz.

Eta hildakoak gertatzean ez daitezela lan-istripuen estatistika ofizialak murrizten saiatu, administrazioak ez ditzala heriotza natural edo errepideko trafikoko ezbehar gisa hartu. Lan istripuak dira argi eta garbi. Garraiolaria lanean ari zirela gertatzen dira.

Industria sektoreak 18 hildako utzi ditu 2023 honetan. Azken urteetan salatzen gatozen moduan istripu horietako asko makina erremintaren araudia betetzen ez delako sortzen dira. Aurten ere, harrapatze eta kolpe istripu larriak gertatu dira, denak makinaren araudia betetzen ez zutenak. Inork ez du kontrolatzen araudia behar bezala betetzen denik, enpresaren borondatearen esku geratzen da praktikan. Konparaketa bat egite aldera, ez dago makinetan Ibilgailuen Azterketa Teknikorik (IAT), autoetan gertatzen den bezala. Honela, langileontzako eskuragarri dauden makina kopuru izugarri batek ez luke makinentzako balizko IATa pasako. Ondorioa gure bizitzarekin ordaintzen dugu.

Industrian ere istripu ez traumatikoen eragina aipagarria da eta horrekiko atzematen den lanarekiko lotura ere, aurretik aipatu bezala.

Eraikuntzak aurten 6 hildako utzi ditu Euskal Herrian. Hildako langile kopuruan aurreko urtearekiko beherakada izan dela ikusi daiteke, dena den, sektoreko istripu kopuruan ez da beherakadarik izan, gorakada baizik. Eraikuntzako heriotzek lotura zuzena izan ohi dute altueretako erorketekin eta aurten istripu mota horrek eragindako hildako kopuruan ere beherakada izan da. Istripu kopuruak esan bezala, goranzko joera izan du, beraz, ez dago esaterik laneko baldintzetan eta segurtasun neurrietan hobekuntzarik izan denik. Istripu horietatik asko larriak izan dira eta potentzialki hilgarriak beste batzuk. Aurtengo hildako kopurua datu koiunturala dela ulertu dezakegu, azken urteetan bai istripu kopuruan eta bai hildako kopuruan sektore hori delako datu latzenetakoak pairatzen dituen.

Nekazaritzan eta arrantzan 7 hildako izan dira. Nekazaritzari dagokionez bi heriotza traktoreen istripuen baitan izan dira eta beste bi upategietako intoxikazioak. Traktoreen istripuen atzean mantenu falta, prebentzio eta formakuntza urria izan ohi dira, lan tresna mekaniko horrek dituen arriskuak gutxietsiz. Bestalde, gune itxietan ematen diren intoxikazioek bi heriotz utzi zituzten upategietan. Osalani eta lan ikuskaritzari segurtasun neurrien inplementaziorako ekimenak exigitu dizkiegu baina tamalez ez dugu ikusi ekimen zehatzik martxan ipini dutenik, informazio kanpainetatik haratago. Arlo honetan ere formazio eta prebentzioa neurrien falta nabarmena da.

Bortxakeriak 3 langileren heriotza ekarri du aurten Euskal Herrian. Irakasle bat eta diskoteka batetako atezaina erailak izan dira. AHTko obretan ziharduen langile batek bere buruaz beste egin zuen lanean bertan. Abiadura handian doan jendarte honetan, arazo psikosozialen iturrietako bat lanak eragina da. Gero eta nabarmenagoa da jendartean orokorrean dagoen ondoeza, areagotzen doan prekarietate zein pobreziak eragindakoa hein handi batean. Lan munduan beste dimentsio bat hartzen du eta eragin zuzena dauka. Patronalak zein administrazioek gabezia handiak dituzte arrisku horien kontrolean eta eragina agerikoa

da. Datozen urteetako erronka handiena izango da eta patronala zein gobernuak berandu dabilta. Bitartean langileon osasuna urratzen ari da, batzuetan heriotza ekartzera.

DATU OFIZIALEN INGURUKO IRAKURKETA:

Datuak xehetu eta aztertzen hasi aurretik, adierazi behar dugu laneko istripu hilgarriek dagokienez, EAEn SOS deiak-en bidez komunikatzen zaizkiela lehen instantziak Osalari eta lan Ikuskaritzari. Honek esan nahi du, pribatizatua izan den zerbitzu publiko batetako langileek, ertzaing bat buru dutelarik, erabakitzen dutela zer izan daiteken lan istripu eta zer ez, eta izan dira hainbat heriotz SOS deiak-ek laneko istripuztat hartu izan ez dituenak. Bestalde, nahiz eta administrazioak abisua jaso, nahiz eta enpresak berak komunikazioa egin (legez derrigorrezkoa da), batzuetan ez dituzte heriotz horiek ofizialki jasotzen ikerketa prozeduren aitzakiarekin, AHTko obretan bere buruaz beste egin zuen langilearen kasua, esaterako. Honi batu behar zaio, laneko orduetan gidatzen edo in-itinere gertatutako istripu asko ere ez direla taula ofizialetan isladatzen.

heriotza istripuen konparaketa:

	2023		2022		2021		2020	
	Datu ofizialak (Azarorarte)	sindikatuok	Datu ofizialak	sindikatuok	Datu ofizialak	sindikatuok	Datu ofizialak	sindikatuok
Araba	4*	11	5	9	10	10	5	18
Gipuzkoa	9*	16	14	19	12	16	6	17
Bizkaia	10*	11	7	15	13	22	16	24
Nafarroa	10**	12	12	20	13	20	11	11
Iparraldea	-	5	-	2	-	0	-	3
GUZTIRA	33+4itinere	55+4 kanpoan	38	69	48	68	38	73

*EAE azarora bitarte

**Nafarroa urria bitarte

6. LAN ISTRIPUAK

	Baja gabeak			Arinak(baja)			Larriak(baja)			Hilgarriak		
	EAE	NAF	Guztira	EAE	NAF	Guztira	EAE	NAF	Guztira	EAE	NAF	Guztira
2014	45.790	12.302	58.092	27.909	6.874	34.783	156	55	211	30	9	39*
2015	50.828	12.478	63.306	30.012	7.599	37.611	176	62	238	37	15	55*
2016	51.675	13.448	65.123	31.397	8.828	40.225	165	67	232	40	13	53*
2017	48.634	13.806	62.440	33.333	9.290	42.623	199	59	258	41	13	54*
2018	47.110	13.670	60.780	34.181	9.816	43.997	217	66	283	46	21	67*
2019	46.137	14.392	60.529	36.870	12.174	49.044	206	97	303	31	15	46*
2020	36.204	11.010	47.214	29.979	9.948	39.927	196	77	273	59	11	70*
2021	38.282	12.781	51.063	34.606	11.455	46.061	210	79	289	48	20	68*
2022	37.351	X**	**	36.291	11.872	48.217	252	88	354	43	20	63*
2023	37.319	12.628	49.947	36.445	13.656	50.101	164	76	240	27	10	55*


* Hildako kopuruan, atzerrian hildako Euskal langileak ez leudeke.

** 2022. urteko datuak falta dira


*EAE abenduko datuak ponderatuta (aurreko urtekoak zuzenduta)

*Naf: Azken bi hilabeteak ponderatuta (aurreko urtekoak zuzenduta)

ISTRIPU ARINEN BILAKAERA AZKEN HAMARKADAN (Baja gabeak eta bajarekin)



ISTRIPU LARRIEN BILAKAERA AZKEN HAMARKADAN



Hegoaldeko administrazioek eskeintzen dituzten datu ofizialak patronalak ekoitziak dira. Istripuen zein laneko gaixotasunen (kontingentzia profesionalen) komunikazioa patronalak mutualitateen bidez egiten du. Mutualitateek aplikazio informatikoak erabiliz, Nafarroan Delta sistema eta EAEn IGATT, Gizarte Segurantzza, Osakidetza zein Osasunbideari jakinarazten diete kontingentzia profesionalen intzidentzia. Beraz, Patronalak jokalaria eta epaile lanak egiten ditu eta honela datuak nahieran faltsutzeko aukera paregabea du. Soilik modu honetan ulertu dezakegu administrazio publikoak laneko istripu, heriotza eta laneko gaixotasunen aurrean duten azpierregristoa. Bai Osalango bai NOPLOI-ko kontseiluetan Patronaleko ordezkariak soilik ukatzen du azpierregristo hau, beste guztiek, administrazioko ordezkariak barne, aitortzen dute azpierregristoa.

LAN ISTRIPU ARIN ETA LARRIAK:

Lan heriotzak estaltzea ez da erraza, sindikatuok baditugulako baliabideak horiek zelatatzeke, heriotzak albiste izan ohi direlako. Aldiz, istripu arin eta larriak ezkutatzeko askoz errazagoa da eta gurean enpresen zein mutualitateen eskuetan dago datuen amarrua.

Honela, Patronalak EAEnko administrazioari agindutako datuen arabera, 2022an 36.542 bajadun istripu izan ziren; bestalde, baja gabeko 37.351 istripu jakinarazi ziren.

2023an bajadun istripuak xumeki areagotu dira, 36.609 bajadun istripu hain zuzen. Jakinarazi diren baja gabeko lan istripuak 37.319 izan dira.

Lan istripuak EAEn	2023	2022
Bajadunak	36.609	36.542
Bajagabeak	37.319	37.351
GUZTIRA	73.928	73.893
Birgaixotzeak	1668	1577

Birgaixotzeetan gorakada.

Birgaixotzeak mutualitateko sendagileek langileak sendatu aurretik emandako alden erakusle dira, langileei, lanak eragindako aldikako ezintasun bat pairatu eta osatu gabe daudelarik lanera itzularazi zaiei, osasun printzipioen kontra. Gogoratu behar dugu mutualitateen lehentasuna ez dela langilea osatzea, baizik eta lehenbaitlehen lanera itzultzea. Ebidentzia horren aurrean, ezintasunak behartuta, mutualitateko sendagileek berriro ere baja eman behar izan dutena beren praxi okerra agerian utziaz. Hau, baina, oso gutxitan izaten da errekonozitua eta gehienetan langileek osatu gabe itzuli behar izaten dute lanera, mutualitateko sendagileek irizpide ekonomizistak hobesten dituztelako.

ISTRIPU LARRIAK

Datu “ofizialen” arabera, aurten istripu larriak modu nabarmenean jetsi omen dira. EAEn 2023an mutualitateek jakinarazitako istripu horietatik soilik 164 kalifikatu dituzte larri bezala. Publikoki salatu behar da, larritasuna enpresaren interesak babesten dituen mutualitatearen sendagilearen kriteriopean kalifikatzen dela, hau da, ez dago inongo arau edo legerik larritasunaren parametroak zehazten dituenik. Beraz, larri kalifikaturiko guztiak larriak direla ez du inork zalantzan jartzen. Galdera da arin kalifikatutako zenbat ote diren larri.

Nafar Gobernuak udara atarian eskeintzen du urteroko ezbeharren txostena. Bitartean datu mugatu batzuk argitaratzen ditu webean. Gogorarazi nahi dugu datu hauek ere mutualitateek ekoizten dituztela eta administrazioak bere egiten ditu ontzat emanaz. EAEn gertatu den antzera, istripuak orokorrean gora egin dute, are nabarmenago Nafarroan. Istripu larri zein hildakoen kopuruak aldiz, beherantz egin dute 2023an.

Lan istripuak NAFARROAn	2023	2022
Bajadunak	13.656*	11.872
Bajadunak eta larriak	76*	88

*bi hilabete ponderatuta

Salatu behar dugu langilegoak ederki ezagutzen duena, hau da, Mutualitateek istripu larriak ez dituztela larri bezala kalifikatzen, ahal den neurrian ez dute bajarik preskribatzen, laneko istripu batean sorturiko edozein istripu edo lesio kontingentzia arrunt gisara sailkatzen saiatzen dira. Arazo muskuloeskeletikoek eta enpleguak eragindako arazo psikologikoek dituzte faltsutze daturik altuenak.

Beraz, errealitate hori jakinda ere, datu ofizialek erakusten digutena oso larria da eta benetazko egoera are larriagoa.

7. LANEKO GAIXOTASUNAK

Zalantzarik gabe, laneko gaixotasunena da lan munduan dagoen iruzurrik handiena lan osasunari dagokionean. Mutualitateek lanak sortutako gaixotasunak Gizarte Segurantzara bideratzen dituzte modu prozedimentatuan, eta hala, patronalak bere irabaziak bermatzeko, langilerian sorturiko gaixotasunak Gizarte Segurantzak bere gain hartu behar ditu mutua patronalek beren tratamendu eta prestazio ardurei bizkar ematen dieten bitartean. Langileriaren eskubideen deusezte hori, gizarteari egiten zaion iruzurra kontrolatzeko tresnarik ez dago. Patronalak erabakitzen du.

Honen aurrean, langileok ibilbide juridikoa abiatu behar dugu gaixotasunak laneko gaixotasun direla aitortzeko; trabaz beteriko bide luzea izaten da. Adibidez, prozedura juridiko horietan

mutualitateek eramaten dituzten baliabideak eta peritoak diru publikoz finantzatuak dira, sistema are gehiago bihurtzen da.

2023an aurreko urteetan baino laneko gaixotasun gehiago izan dira datu ofizialetan aintzat hartuak. Dena den, kopuruak aztertuz gero ikusi daiteke errealitatek oso urrun daudela eta iruzurra guztiz nabaria dela.

EAE gaixotasunak	2023	2022	2021	2020	2019	2018
Bajarekin	1573	1360	1340	-	-	-
Baja gabe	1768	1469	1360	-	-	-
GUZTIRA	3341	2829	2700	2390	3158	3274

Iruzur horri OMSk berak ematen dio dimentsioa, izan ere, lanak sorturiko heriotza guztien %20 istripuek eragina da, geratzen den %80 gaixotasun profesionalek eragina da eta datu hori modu nabarmenean ezkutaturik dago, gizarte segurantzara bideraturik, hain zuzen.

EAEn 2022an laneko faktoreek eragindako 54 minbizi kasu soilik izan dira onartuak. OMSk dio minbizi guztien %30 eta %40 artean laneko faktoreek sortuak direla. Beraz, datuek erakusten digute mutualitateek, gobernuen onespenearekin, darabilten jokabide maltzurra.

NAFARROA laneko gaixotasunak	2023	2022	2021	2020	2019	2018
Bajarekin	621	548	-	-	-	-
Baja gabe	833	771	-	-	-	-
GUZTIRA	1454	1319	1276	1217	1375	1557

- Amiantoak hildakoak. Erregistroa. ASVIAMIE 13 hildako EAEn 2023an.

2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022	2023	AZKEN 10 URTEETAN
22	20	27	21	40	36	32	14	13	26	251

Amiantoak eragin eta Estatuak aitortutako minbizien ia erdia EAEn izan da. Bistan da presio sindikalak eragina duela honetan, nahiz eta oraindik ere errealitatek oso urrun gauden eta laneko minbizi askok errekonozitu gabe jarraitu. Europako beste herrialdeekiko datuak oso baxuak dira, iruzur orokortuaren beste erakusle bat da.

Honela, lanak sorturiko gaitzen tratamendu eta gastu osoa gizarte segurantzaren eskutik doa; nahiz eta beranduago laneko gaixotasun bezala errekonozituak izan Mutualitateek ez dute diru hori itzultzen. Patronala beti ateratzen da irabazle.

***PATRONALAK ETA INSTITUZIOEK
GAIXOTU ETA HILTZEN GAITUZTE***

LAB · ESK · STEILAS · EHNE-etxalde · HIRU